

## Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

**Mikel Basabe Kortabarría**, Aralar taldeko bozeramaileak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, ondoko **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA** egiten du “Gernikako bonbardaketaren biktimei barka eskatzeari buruz”, osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin.

### **ZIOA**

Gernikako bonbardaketa mundu osoan ezagun den gertakaria da, gerraren ankerkeriaren sinbolo ere bihurtu dena. Gertatu zenetik 73 urte joan diren arren, oraindik orain Espainia Erresumako ezein estatuburuk ez gobernuburuk ez die bonbardaketa hartako biktimei barkamenik eskatu. Hori gutxi ez, eta atzera egiteko ahalegin baten aurrean gaudela ematen du, egunokin Ganbera honetako buruak egin dituen adierazpenak tarteko. Horregatik, inoiz baino premiazkoagoa da egindako kaltearengatik barkamena eskatzea, era ofizialean eskatzea eta Estatuburuak edo gobernuburuak egitea.

Hori dela eta, honako legez besteko proposamena egiten dugu, Osoko Bilkuran eztabaida dadin.

### **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA**

Eusko Legebiltzarrak Espainiako gobernuari eskatzen dio ez dezala gehiago atzeratu Gernikako herriari barkamen-eskaera egitea.

**Gasteizen, 2010eko apirilaren 27an**

**Mikel Basabe Kortabarría**  
**Aralar taldeko legebiltzarkidea**